



**AGINDUA, INDUSTRIA, TRANTSIZIO  
ENERGETIKO ETA  
JASANGARRITASUNEKO  
SAILBURUARENA, JABARI PUBLIKO  
HIDRAULIKOKO URTEGIETAN  
INSTALAZIO FOTOVOLTAIKO  
FLOTATZAILEAK INSTALATZEKO  
ARAUBIDEA EZARTZEN DUEN  
DEKRETU-PROIEKTUA ALDEZ  
AURRETIK ONARTZEA ERABAKITZEN  
DUENA.**

**ORDEN DEL CONSEJERO DE  
INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA  
Y SOSTENIBILIDAD, POR LA QUE SE  
ACUERDA LA APROBACIÓN PREVIA  
DEL PROYECTO DE DECRETO POR EL  
QUE SE ESTABLECE EL RÉGIMEN  
PARA LA INSTALACIÓN DE LAS  
PLANTAS FOTOVOLTAICAS  
FLOTANTES EN LOS EMBALSES  
PERTENECIENTES AL DOMINIO  
PÚBLICO HIDRÁULICO.**

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2025eko abuztuaren 11ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroetako jabari publiko hidraulikoko urtegiatan instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko araubidea ezartzen duen xedapen orokor bat egiteko prozedura hastea erabaki zen.

Mediante Orden de 11 de agosto de 2025, del consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad se acordó el inicio del procedimiento de elaboración de un decreto por el que se establece el régimen para la instalación de las plantas fotovoltaicas flotantes en los embalses pertenecientes al dominio público hidráulico en las cuencas internas del País Vasco.

Prozedura hasi ondoren, dekretu-proiektua landu da, eta hori aurretiaz onartzea da agindu honen xedea.

Tras el inicio del procedimiento se ha procedido a la elaboración del Proyecto de Decreto cuya aprobación previa constituye el objeto de la presente Orden.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritakoa betez, eta dekretu-proiektua 2025eko abuztuaren 11ko Aginduan ezarritako planteamenduen arabera egin denez, bidezkoa da hura onartzeko izapide egokiekin jarraitzea.

En cumplimiento de lo establecido en la Ley 6/2022 de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de carácter General, y habiéndose elaborado ya el proyecto de Decreto conforme a los planteamientos establecidos en la Orden de 11 de agosto de 2025, procede continuar con los trámites oportunos para aprobar el mismo.

Aipatutako 6/2022 Legearen 15 artikuluzatian xedatutakoa betez, eta aipatutako lege-aginduak eta arlo horretan aplikatzekoak diren beste xedapen orokor batzuk ikusita,

En virtud de lo establecido en el artículo 15 de la citada Ley 6/2022, vistos los preceptos legales citados y otras disposiciones de general y concordante aplicación,



**EBATZI DUT:**

**LEHENA:** Aldez aurretik onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroetako jabari publiko hidraulikoko urtegietan instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko araubidea ezartzen duen dekretu-proiektua.

**BIGARRENA:** Ezarritako prozedurarekin jarraitu, xedatutako izapideak egin eta nahitaezko txostenak biltzea.

**HIRUGARRENA.** Aldez aurretik onartutako dekretu-proiektuaren testua Eusko Legebiltzarrera bidaltzea, ekainaren 2ko 8/2016 Legea, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duena, betez.

**RESUELVO:**

**PRIMERO:** Aprobar previamente el proyecto de Decreto por el que se establece el régimen para la instalación de las plantas fotovoltaicas flotantes en los embalses pertenecientes al dominio público hidráulico en las cuencas internas del País Vasco.

**SEGUNDO:** Continuar con el procedimiento establecido, realizando los trámites previstos y recabando los informes preceptivos.

**TERCERO.** Remitir al Parlamento Vasco el texto del proyecto de Decreto aprobado de forma previa en cumplimiento de la Ley 8/2016, de 2 de junio, de modificación de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.

**INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNEO K SAILBURUA  
EI CONSEJERO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD  
MIKEL JAUREGI LETEMENDIA**

*...../2025 Dekretua, ....aren ...(e)koa, zeinaren bidez ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroetan jabari publiko hidraulikoari dagozkion urtegietan instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko araubidea.*

Energia berriztagarriak sustatzea ardatz garrantzitsua da Euskadik bere klima-neutraltasuna beranduenez 2050ean lortzeko egin behar duen trantsizio energetikoaren aurrerabidean. Hain zuzen ere, horixe du xede EAeko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legeak.

Horrela, EAeko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 23. artikulua honako helburu hauxe dauka zehaztuta energia berriztagarrietan lortzeko: energia berriztagarriek azken energia-kontsumoan gutxienez % 32ko partaidetza izatea 2030ean.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritza, EAeko trantsizio energetikoaren prozesuaren bultzatzaile denez, energia berriztagarria sortzeko proiektuak sustatzeko ahaleginetan ari da, honela eta hala.

Instalazio fotovoltaiko flotatzaileak urtegietan instalatzeari dagokionez, Estatuaren eremuan nabarmentzekoa da uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Uren Legearen testu bateginean 77 bis artikulua sartu izana («Jabari publiko hidraulikoan instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatzea»). Zehazki, martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako seigarrenaren 1 zenbakiaren bidez sartu zen artikulua hori –errege lege-dekretu horren bidez, premiazko neurriak hartu ziren Ukrainako gerrak eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei Plan Nazionalaren esparruan erantzuteko (martxoaren 30eko BOE), eta instalazio fotovoltaiko flotatzaileak urtegietan instalatzeko araubide juridikoaren oinarriak jasotzen ditu–.

Esandako hori garatu beharrez, uztailaren 9ko 662/2024 Errege Dekretua jarri zen ondoren indarrean. Dekretu horrek araubidea ezartzen du instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko Estatuko Administrazio Orokorrak kudeatzen dituen arro hidrografikoetan jabari publiko hidraulikoan kokatutako urtegietarako, eta, berorren bidez, aldatu egiten da Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsia. Errege-dekretu horrek 139 ter artikulua gehitu zuen, zeinak arautzen baitu «jabari publiko hidraulikoan eguzki-instalazio fotovoltaiko flotatzaileen emakida ematea».

Azken horrek adierazten duen bezala, urtegietan instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeak aukera berriak irekitzen ditu jatorri berriztagarriko elektrizitatea sortzeko gaitasuna areagotzeko, halako instalazioek hainbat abantaila baitauzkate sistema lehortarren aldean. Izan ere, energia-errendimendua hobetzen da –ura hoztearen efektuei eta hautsaren presentzia txikiagoari esker–; itzal-azalera handitzen da –lurrunketa murriztuz–; eta fitoplanktonaren hazkundera moteltzen da ur-masa eutrofizatueta edo eutrofizazio-arriskuan daudenetan.

Nolanahi ere, oraintxe hasi direnez garatzen instalazio fotovoltaiko flotatzaileak, nahitaezkoa da, alde batetik, programak abian jartzea ur-masa hartzaileen egoeraren jarraipena egiteko, eta horrela zehaztea instalazio horiek zer inpaktu izan dezaketen haien produktibitatean, uraren kalitatean edota biotan; eta, bestetik, aztertzea zein neurri gehigarri exiji daitezkeen, hargatik baztertu gabe ingurumen-inpaktuaren ebaluazioak berak ezarritako baldintza guztiak, aplikatu beharreko araudiarekin bat.

Arestian aipatutako arau-xedapen berriak aldarrikatuz gero, gomendagarria da Euskal Autonomia Erkidegoak arautzea zein araubide bete behar den EAeko barne-arroetan jabari publiko hidraulikoetako urtegietan instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatzean, eta, hain zuzen ere, hori egingo da dekretu honen bidez.

Era berean, proportzionaltasun-printzipioa betetzen da; izan ere, helburua da, bestek beste, ur-zuzenbidean bide bat txertatzea energia berriztagarrien erabilera indartzeko, EAeko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legean ezarritakoarekin bat etorriz. Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokionez, azpimarratzekoa da dekretu honen helburua dela hainbat zehaztapen ematea -egoerak, baldintzak eta prozedura- instalazio fotovoltaiko flotagarrien titularrei gaikuntza emadakien instalazio horiek jabari publiko hidraulikoan Administrazioak ezarritako baldintzetan instalatzeko, ustiatzeko eta haietatik dagozkien onurak eskuratzeko, Uren Legearen testu bateginaren 77 bis artikuluan xedatutakoa garatuz. Horrela, arau-esparru egonkor, aurreikusgarri, integratu, argi eta ziurtasunezkoa sortzen da, erraztasunak ematen dituen berau ezagutzeko eta ulertzeko, eta, horrenbestez, baita pertsonak eta enpresek jarduteko eta erabakiak hartzeko ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseiluak aldeko txostena egin du xedapen orokorraren proiektuari dagokionez, 2025eko ....aren ....(e)(a)n egindako osoko bilkuran. Txosten hori loteslea da, EAeko Uraren 1/2006 Legearen 14.b) artikulua arabera.

Onespen-prozedurari dagokionez, dagoeneko gauzatu dira aurretiazko kontsultazapideak eta beste partaidetza-prozesu batzuk, eta bete egin da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutakoa.

Horrenbestez, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren proposamenari jarraikiz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren bat etorrira, eta Gobernu Kontseiluak 2025eko ....aren ...(e)ko bilkuran proposamena aztertu eta onetsi ondoren, honako hau

## XEDATZEN DUT:

### **1. artikulua.**– *Xedea eta aplikazio-eremua.*

1.– Dekretu honen xedea da araubide juridiko bat garatzea Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroetako jabari publiko hidraulikoko urtegietan kokatutako eguzki-instalazio fotovoltaiko flotatzaileak martxan jartzeko gaitzen duten administrazio-baimen eta -emakidak arautzeko, uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Uren Legearen testu bateginaren 77 bis artikulua arabera.

2.– Dekretua aplikatzeko lurralde-eremua Euskadiko barne-arroena izango da, EAeko Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 4.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

### **2. artikulua.**– *Definizioak.*

Dekretu honen ondoretarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

a) Instalazio fotovoltaiko flotatzailea: energia elektrikoa ekoizteko proiektu oro, plataforma flotatzaile batean instalatuta eta fisikoki jabari publiko hidraulikoan kokatuta dagoen sistema fotovoltaiko baten instalazio integratuan zurkaiztuta.

Instalazio fotovoltaiko flotatzaile oro hartzen da energia elektrikoa ekoizteko instalaziotzat, 413/2014 Errege Dekretuaren 2.1 artikuluan definitutako b.1.1 azpitaldekoa (413/2014 Errege Dekretua, ekainaren 6koa, Energia-iturri

berriztagarrietan, kogenerazioan eta hondakinetan oinarritutako energia elektrikoa ekoizteko jarduera arautzen duena).

- b) Urtegiaren azalera erabilgarri osoa: urtegiak azken hamar urteetan izan duen hileko batez besteko azalera, instalazio potentzialen azalera dimentsionatzeko erabili beharrekoa.

Azalera hori kalkulatzeko nahikoa informazio hidrologiko ez duten urtegien kasuan, Uraren Euskal Agentziak datua ordeztuko du urtegiaren maila gorena normaleko azalerarekin. Azalera hori izango litzateke hustubide-organoetako elementu mekaniko guztiak itxita daudenean urtegiak atxikitzen duen ur maila gorena.

- c) Instalazio fotovoltaiko flotatzaile batek okupatutako jabari publiko hidraulikoko azalera: jabari publiko hidraulikoan kokatutako instalazio osoa biltzen duen poligonoak mugatutako eremua, buiek balizatutako babes-azalera barne.
- d) Sorkuntza-instalazioaren azalera: sorkuntza-instalazio osoa biltzen duen poligonoak mugatutako eremua, barnean hartuz uharteak, ainguraketak eta lehendik dauden kalearteak.

**3. artikulua.**– *Sektore elektrikoaren araudiak eskatzen dituen sarbide- eta konexio-eskubideak eta -baimenak. Emakida-araubidea eta administrazio-baimenak.*

1.– Urtegietan instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatu eta ustiatu baino lehen, honako hauek bete beharko dira:

- a) Sektore elektrikoaren eremuan, sarbide- eta konexio-eskubideei eta -baimenei dagokienez, Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 33. artikuluan eta hura garatzeko araudian xedatutakoa. Administrazio-baimenen araubideari dagokienez, abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikuluan eta hura garatzeko araudian xedatutakoari jarraituko zaio.

Sektore elektrikoaren eremuko administrazio-baimenen arloko eskumenei dagokienez, bete beharko da abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 3.13 artikuluan eta EAEko energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan xedatutakoa.

- b) Jabari publiko hidraulikoaren eremuan, administrazio-emakidaren araubideari dagokienez, bete beharko da Uren Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legea eta lege hori garatzeko arauetan ezarritakoa. Jabari publiko hidraulikoaren emakida objektibotasunaren, gardentasunaren, konkurrentziaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera emango da.

2.– Aurretiatzeko administrazio-baimena, sektore elektrikoaren araudiak eskatzen duena, jabari publiko hidraulikoaren emakida-eskabidearekin batera izapidetu ahal izango da. Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, ezin izango da eman, baldin eta eskatzaileak ez badu aurrez eskuratu aipatutako emakida.

**4. artikulua.**– *Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.*

Instalazio fotovoltaiko flotatzaileak garatzeko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa honako hauetan ezarritakoak eraenduko du: Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legea, eta horiek garatzeko araudian eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritakoa.

Uren Legearen testu bateginaren 98. artikuluekin bat etorritik, jabari publiko hidraulikoari eragiten dion emakida izapidetzean, txosten bat aurkeztu beharko da

ingurumenean eragin ditzakeen ondorio negatiboak buruz, horretarako eskumena duen ingurumen-organismoak azter dezan.

**5. artikulua.**– *Jabari publiko hidraulikoan instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko emakida onartzea. Izapideak eta ingurumen-baldintzak.*

1.– Jabari publiko hidraulikoan dauden urtegietan instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko, aurrez administrazio-emakida eskuratu beharko da. Emakida aldi baterako izango da, eta bere gehieneko iraupen-epea, luzapenak barne, ezin izango da izan hogeita bost urtetik gorakoa, Uren Legearen testu bateginaren 77 bis artikulua arabera.

2.– Honako hauetan ez da emango instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko nahitaezkoa den emakida:

a) Demarkazio hidrografikoaren Plan Hidrologikoak ur-masa oso eraldatu edo artifizial gisa sailkatzen ez dituen aintziretan, urmaeletan edo jabari publiko hidraulikoko beste elementu batzuetan.

b) Ingurumena babesteko figuraren baten eraginpean dauden ur-masa oso eraldatu edo artifizialean, emakida eman baino lehen ez badago gune babestua kudeatzen duen organismoak eginiko aldeko adierazpenik.

3.– Instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko emakida emateko, aintzat hartuko dira ur-masaren egoera trofikoa eta urtegiaren azalera erabilgarri osoa (ur-masaren egoera trofikoa irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuaren 8 bis artikuluan dago definituta; errege-dekretu horrek azaleko uren egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak eta ingurumen-kalitatearen gaineko arauak ezartzen ditu).

Uraren Euskal Agentziak zehaztuko du zein den egoera trofikoa, irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuan ezarritako irizpide eta metodologiaren arabera. Uraren Euskal Agentziak urtegi bati buruzko informaziorik ez duenean haren egoera trofikoaren diagnostikoa ezagutu ahal izateko, eskatzaileak aurkeztuko beharko du egoera hori zehazteko beharrezkoa den informazio analitikoa. Informazio hori ingurumen-sektorean ur kontinentaletan saiakuntzak egiten dituen eta organismo independente batek akreditatuta dagoen entitate batek bilduko du, UNE-EN ISO/IEC 17025 arauan edo nazioartean onartutako beste arau baliokide batean jasotako irizpideekin bat etorritik.

Ez-eutrofiko gisa sailkatutako urtegietan, gehienez, urtegiaren azalera erabilgarri osoaren % 5eko azalera emango da. Eutrofiko gisa sailkatutako urtegietan edo eutrofiko egoteko arriskuan daudenetan, gehienez urtegiaren azalera erabilgarri osoaren % 15eko azalera emango da.

Ehuneko horiek murrizterik egongo da lehendik dauden erabilerak eta eskubideak errespetatzeko aldera, urtegiaren ustiapen- eta segurtasun-araubidea betetzeko, Uren Legearen testu bateginaren 92 bis artikuluan ur-masa atxikietarako eta eremu babestuetarako aurreikusitako ingurumen-helburuak betetzen direla bermatzeko, eta, hala badagokio, espezie exotiko inbaditzaileak hedatzea eragozteko.

Jarraipen-programen bidez urtegiaren egoera trofikoa hobetu edo okertu egin dela egiaztatzeak ez du berez jabari publiko hidraulikoaren azalera aldaraziko, baldin eta horren okupazioa eguzki-instalazio fotovoltaiko flotatzaileak erabiltzeko eman bada.

4.– Alderdiak eskatuta has daiteke titulartasun publikoko nahiz pribatuko urtegietan instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko emakidak emateko prozedura.

5.– Urtegietan instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko emakidak Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan jasotako erregulaziora egokituko dira, honako espezialitate hauekin:

a) Emakida emateko prozedurari hasiera emateko, beharrezkoa izango da aurrez edukitzea Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 33. artikuluan eskatzen diren sarbide- eta konexio-baimenak.

Betebehar horretatik kanpo geratuko dira autokontsumo-modalitate bati atxikita dauden instalazio fotovoltaiko flotatzaileentzako emakida-eskabideak, baldin eta ez badute sarbide- eta konexio-baimenik behar, Trantsizio Energetikorako eta Kontsumitzaileen Babeserako Presako Neurrien urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

b) Emakida-eskabidea Uraren Euskal Agentziaren erregistro elektronikoan aurkeztu beharko da, dokumentazio honekin batera:

1. Azterketa bat, instalazioaren eraginpeko ur-masak lortu behar dituen ingurumen-helburuetan instalazio fotovoltaiko flotatzaileak izan dezakeen efektuari buruzkoa. Azterketak gutxienez alderdi hauek hartuko ditu kontuan: ur-masaren egoeraren gaineko eragina –haren egoera trofiko barne–, espezie inbaditzaileen hedapena, biodibertsitatea, paisaia eta urtegiaren jabari publiko hidraulikoaren beste erabilera batzuetan izan dezakeen eragina. Gainera, azterketak aintzat hartuko ditu, besteak beste, instalazioaren eta teknologiaren efektuen analisisa, barnean hartuta erabilitako substantziak eta materialak, urtegiaren gainazalari, sakonerari, egonaldiari, hidrologiari eta haizeen erregimenari dagokienez.

Era berean, urtegiaren egoera trofikoari dagokionez, honako hauen ehunekoari buruzko informazioa jasoko du azterketak: zianobakterioak, a klorofila, guztizko fitoplankton-biobolumena, alga-taldearen indizea, Secchi-ren diskoa, guztizko fosforoa, ortofosfata, nitratoa eta amonioa. Egoera kimikoari buruzko informazioa ere jaso beharko du, eta instalazio- eta mantentze-lanetan erabiliko diren materialetan egon daitezkeen konposatuak zehaztu beharko ditu.

2. Kaudimen tekniko eta ekonomikoko eskakizunak betetzearen justifikazioa, sektore elektriakoari buruz indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera.

3. Aurkeztutako emakida-eskabideari erantzuteko, Uraren Euskal Agentziaren alde 4.000 €/MW-eko potentzia instalatuaren behin-behineko bermea Gordailuen Kutxa Orokorrean gordailutu izanaren frogagiria.

Behin-behineko bermearen araubidea sektore publikoarekin kontratatzeko indarrean dagoen legedian xedatutakoaren mende egongo da.

4. Instalazio fotovoltaiko flotatzailearen aurreproiektua, teknikari eskudun batek izenpetua. Bertan, alderdi hauek jasoko dira: egin beharreko obren eta instalazioen deskribapena –urtegiaren azalera erabilgarri osoari dagokionez okupatu nahi den azalera justifikatuz–, instalatu beharreko gehieneko potentzia eta sarerako konexio-puntuak –beharrezkoak direnean–, eta, halaber, instalazio fotovoltaiko flotatzaileak hustubide-elementuekiko eta presa-harguneekeko errespetatu beharreko gutxieneko segurtasun-tartearen justifikazioa. Aurreproiektuak zehaztu egingo ditu instalazio fotovoltaiko flotatzaileak eta sorkuntza-azalerak okupatutako jabari publiko hidraulikoaren koordinatu geografikoak eta azalera.

c) Uraren Euskal Agentziak aztertu egingo ditu aurkeztutako dokumentu teknikoak eta emakida-eskabidea, ikusteko ea aurrez bateragarriak edo bateraezinak diren Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Plan Hidrologikoarekin eta existitzen diren erabilera eta eskubideekin.

d) Uraren Euskal Agentziak aurretiazko nahitaezko txostena eskatuko dio ekoizpen-unitate horiek baimentzeko energia-arloan eskumena duen Administrazio publikoari,

abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 22.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Emakida ezingo da eman, baldin eta energiaren arloan eskumena duen Administrazio publikoak egindako txostena kontrakoa bada.

e) Ingurumena babesteko figuraren baten eraginpean dauden ur-masa oso eraldatu edo artifizialetan, Uraren Euskal Agentziak adierazpena eskatuko dio naturagune babestua kudeatzen duen organoari. Aintzat hartuta 5. artikuluan jasotakoa, emakida ezin izango da eman adierazpen hori kontrakoa bada.

f) Uraren Euskal Agentziak txostena eskatuko dio urtegiaren ustiapenaren titularrari, proiektuak obra hidraulikoaren ustiapen-araubidean eta segurtasunean izan ditzakeen ondorioei buruzkoa.

g) Uraren Euskal Agentziak txostena eskatuko dio presen eta urtegien segurtasunaren arloan eskumena duen Administrazio publikoari.

h) Udallerriak hornitzera zuzendutako urtegien kasuan, Uraren Euskal Agentziak txostena eskatuko dio osasun-agintaritzari, eta azken horrek beharrezkotzat jo ahal izango du instalazioari kontrol edo muga gehigarriak ezartzea.

i) Alde batera utzi gabe eskatzaileak artikulua honen b) letraren arabera aurkeztu beharreko hasierako dokumentazioa, Uraren Euskal Agentziak eskatzaileari eskatu ahal izango dio beharrezkotzat jotzen dituen azterketa tekniko gehigarri guztiak aurkeztu ditzala, behar bezala baloratzeko instalazioak jabari publiko hidraulikoaren kudeaketan izango dituen ondorioak, azpiegituren segurtasuna eta ustiapena, aprobeixamenduak ingurumenarekiko errespetuarekin duen bateragarritasuna, eta plangintza hidrológicoan aurreikusitako emari ekologikoen edo ingurumen-eskarien bermea.

6.– Emakida aldatzeko, berrikusteko eta azkentzeko prozedura egokituko da arau hauetan horri dagokionez xedatutakora: Uren Legearen testu bategina eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren II. tituluko III. kapituluaren 8., 9. eta 10. atalak.

Baldin eta emakida-aldaketek ez badute eskatzen instalazio fotovoltaiko flotatzaile batek okupatutako jabari publiko hidraulikoaren azalera handitzea, proiektu-eskumen berriaren mende jarri gabe izapidetuko dira, edozein unetan eskatzen direla ere.

7.– Jabari publiko hidraulikoan kokatutako urtegietan instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko emakida guztietan, alderdi hauek zehaztuko dira: emakidaren titularra, helburua eta epea, ur-masa, instalazio fotovoltaiko flotatzaileak okupatutako jabari publiko hidraulikoaren koordinatu geografikoak eta azalera, sorkuntza-azalera, udal-mugartea eta lurralde historikoa.

8.– Emakidak baldintza hauek ezarriko ditu nahitaez:

a) Titularrak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren Kutxetan berme bat ordaintzeko betebeharra izango du, instalatutako potentziaren 12.000 €/MW-ra artekoa, jabari publiko hidraulikoari eragindako kalteez eta obrak gauzatzeko erantzuteko. Eskatutako bermeen alderdi guztiak arautuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuan eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoaren arabera.

b) Instalazioak osorik edo partzialki ustiatzeko moduan izateko, beharrezkoa izango da obrak behin betiko aitortzeko akta onestea –Uraren Euskal Agentziak egingo du hori–, eta ustiatzeko eta zerbitzuan jartzeko baimena eskuratzea, Energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren arabera.

c) Instalazioak garbitzeko ura deribatze baimena izatea; hala badagokio, istanteko gehieneko emaria eta urteko gehieneko bolumena adieraziko dira, baita isurketa-baimena ere, bat etorri ingurumen-kalitateari buruzko arauarekin eta erregelamendu bidez edo demarkazioko Plan Hidrologikoan ezarritako emisio-mugekin.

d) Uraren Euskal Agentziaren irizpidearen arabera, urtegi ez-eutrofitoetan edo eutrofizazio-arriskuan daudenetan, sorkuntzako ur-masaren azalera osoan argi naturala sartzeko ratio bat bermatzeko betebeharra, ez instalatzearen baldintzetan gertatzen denarekin alderatuta.

e) Instalazioak ustiatzeko, mantentzeko eta garbitzeko berariazko plan bat aurkezteko betebeharra, eta, halaber, uren kalitatearen eta egoeraren jarraipena egiteko programa-proposamen bat, instalazio fotovoltaiko flotatzailea instalatzeko, abiarazteko, ustiatzeko eta desmuntatzeko faseak biltzen dituena. Programak fase bakoitzean egin beharreko kontrolak eta saiakuntzak jasota izango ditu, eta uren kalitatea zehazten duten kalitate-elementu fisiko-kimiko, kimiko, biologiko eta hidromorfologikoen laginketa-parametroak eta -maiztasuna zehaztuko ditu, baita instalazioaren materialekin eta mantentze-lanekin lotutako analitika espezifikoak ere –horien artean, mikroplastikoen analitikak–. Horrez gain, espezie inbaditzaile baten jakiteko adierazgarriak egongo dira; bereziki, zebra-muskuilu eta txirla asiarrak baten, edo une bakoitzean zehaztuko diren beste batzuk. Informazio analitikoak bildu beharko du ingurumen-sektorean ur kontinentaletan saiakuntzak egiten dituen eta organismo independente batek akreditatuta dagoen entitate batek, UNE-EN ISO/IEC 17025 Arauan edo nazioartean onartutako beste arau baliokide batean jasotako irizpideen arabera.

f) Instalazio fotovoltaiko flotatzailean sortutako hondakinak kudeatzeko plan bat ere aurkeztu beharko du, aintzat hartuko dituena urak ez kutsatzeko ezarri beharreko berariazko neurriak eta jarduketaren ondorioz sortzen diren hondakinak tratatzeko prozedurak.

g) Uraren Euskal Agentziaren iritziz instalazioen instalazioa eta ustiapena urtegiaren lehendik zeuden beste zuzenbide-titulu batzuekin bateragarri egiteko eta urtegiaren kudeaketa egokia bermatzeko beharrezkoak diren neurriak, barnean hartuta emakidaren titularrak erantzukizun zibileko aseguru bat, abal bat edo bestelako finantza-bermeren bat eratzea.

h) Urteko txosten bat aurkeztu beharko da, instalazio fotovoltaiko flotatzaileek urtegiaren ustiapen- eta segurtasun-araubidean dituzten ondorioen jarraipena egiteko.

9.– Jabari publiko hidraulikoan kokatutako instalazio fotovoltaiko flotatzaileen emakiden titularrak jabari publiko hidraulikoko ondasunak erabiltzeko kanonari lotuta egongo dira instalazioaren ekoizpena dela-eta, Uren Legearen testu bateginaren 112. artikulua arabera. Kanon horren zerga-oinarria zehaztuko da Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak sortutako urteari dagokionez argitaratutako eguneko eta egun barruko merkatuko urteko batez besteko prezioaren emaitza gisa.

10.– Horrez gain, urtegiaren azalera erabilgarri osoaren % 10etik gorako azalera hartzen duten instalazio fotovoltaiko flotatzaileen kasuan, emakida-titularrak zenbakizko eredu bat izan beharko du, formatu digitalean jarria eta kontuan hartzen dituena instalaziotik eratorritako aldaketa hidrodinamikoak, baita lotutako aldaketa kimiko eta biologikoak ere. Ereduak aukera eman behar du sistemaren erantzuna sakonkiago ezagutzeko eta neurri zuzentzaileak hartzeko. Uraren Euskal Agentziak exijitu dezake eredu horiek ezartzea urtegiaren azalera erabilgarri osoaren % 10 baino gutxiago hartzen duten instalazioetan, beharrezkotzat jotzen denean egoera edo potentzial ekologikoa eta urtegiaren uraren kalitatea bermatzeko.

11.– Baldintzetan ezarritako jarraipen-programak urtegiaren egoera trofikoaren bilakaera eta uraren kalitate orokorra aztertuko ditu, eta Uraren Euskal Agentziak hura behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren mugak ezarriko ditu.

12.– Uraren Euskal Agentziak jarraipen-programa berrikusteko eskatu ahal izango dio emakidaren titularrari, arrazoituta, bildutako emaitzek hala egitea gomendatzen dutelako, arau-aldaketak gertatu direlako edota eutrofia-arriskua ebaluatzeko prozedurak eguneratu direlako.

13.– Lehiatzeko konkurrentziaren izapidean, Uren Legearen testu bateginaren 60.4 eta 79.2 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz, lehentasuna emango zaie ur-masak hobeto babestea dakarten eskabideei, edo plangintza hidrológicoaren helburuak eta trantsizio energetikoaren nahiz klima-aldaketaren arloko helburuak neurri handiagoan lortzea ahalbidetzen dutenei.

Bereziki, udalerrriak hornitzera bideratutako titulartasun publikoko urtegien kasuan, lehentasunez onartuko dira urtegiaren instalazio fotovoltaiko flotatzaileak instalatzeko zerbitzu publikoko hiri-erabileraren emakidaren titularrak –hau da, udalak, partzuergoak edo mankomunitateak– aurkeztutako eskabideak, uraren hiri-zikloaren energia-balantzea orekatzeko formulatzen denean, bat etorritz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/3019 Zuzentarauak ezarritako energia-neutraltasunaren printzipioarekin (2024ko azaroaren 27ko Zuzentaria, hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzkoa).

#### **6. artikulua. Zehapen-araubidea.**

Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen IX. kapituluaren («Uraren eta zergen arloko zehapenak») aurreikusitakoa hartuko da kontuan.

#### **Xedapen gehigarri bakarra. Aplikatzeko eskuliburuak eta gida teknikoak.**

Uraren Euskal Agentziak bere webgunean argitaratuko du urtegien maila trofikoari buruzko oinarriko informazioa, uren egoeraren jarraipen-sareek emandako informaziotik abiatuta, eta eskuliburuak, gida teknikoak edo gomendioak egin ahal izango ditu instalazio fotovoltaiko flotatzaileek urtegien edo beste ur-masa batzuen egoeran edo potentzial ekologikoan dituzten efektuak karakterizatzeko eta baloratzeko.

#### **Xedapen iragankorra bakarra. Dekretu hau indarrean jarri baino lehen aurkeztutako eskabideak.**

Dekretu hau indarrean jarri baino lehen aurkeztutako eskabideak beste eskabide bat egin beharrik gabe izapidetuko dira, eta emakidak emateko Uren Legearen testu bateginaren 77 bis artikuluan eta dekretu honetan jasotako xedapenak aplikatuko dira.

#### **Azken xedapenetako lehenengoa. Garapenerako gaikuntza.**

Ingurumenaren arloan eskumena duen sailaren titularrari gaikuntza ematen zaio dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

#### **Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.**

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko ....ren ...an.

Lehendakaria,  
IMANOL PRADALES GIL.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua,  
MIKEL JAUREGI LETEMENDIA.

*Decreto /2025, de de , por el que se establece el régimen para la instalación de las plantas fotovoltaicas flotantes en los embalses pertenecientes al dominio público hidráulico en las cuencas internas del País Vasco.*

El fomento de las energías renovables constituye un pilar importante en el proceso de transición energética que debe acometer Euskadi para lograr su neutralidad climática a más tardar en 2050, objeto de Ley 1/2024, de 8 de febrero, de Transición Energética y Cambio Climático de Euskadi.

Así, el artículo 23 de la Ley 1/2024, de 8 de febrero, de Transición Energética y Cambio Climático de Euskadi fija como objetivo en energía renovables, el de lograr para el año 2030 que la participación de las energías renovables en el consumo final energético represente al menos el 32%.

